ADI NATURA

# NORK HIL DU TRIKUA?




Katti Olaizola Gabirondo
Jon Patxi Aiastui Iturbe
★
Paul Caballero



SUA EDIZIOAK




Gertatutakoaren ikerketa aurrera eramateko ibilbidearen mapa duzu hemen. Horretarako trikuaren ezaugarriak eta bizi ohiturak ikertzen hastea izango duzu aproposena, eta bideak nora zaramatzan ikusi...

Animaliak ikertzea ez baita lan makala gero, pazientzia bidelagun beharko duzu.

Ibilbidearen mapa ikusita, goazen hainbat datu ezagutzera.



Basoa erretzeaz gain, ziur suteak trikuaren bazka izango liratekeen animalia ugari hilko zituela. Inguruan janari gutxi izanda, a zer komeriak, zer ahoratu bila eta bila ibili beharra.




Triku baten ohiko pisua al zuen gure trikuak? Irudiak konparatuz jakin ahalko duzu.









Horrez gain, basoan jarritako fototranpeoko kameretan ageri da trikua. Begiratu arretaz irudiei orain arte gure trikuari buruz dakizuna gogoan hartuz... Hau al da gure trikua?

